



Europar Batasunarekin
batera finantzatua
Cofinanciado por
la Unión Europea



Batuz: malgutasun handiagoa ezarpenean

2024ko urtarrilaren 1ean, Bizkaiko enpresak eta autonomoak Batuz sisteman behin betiko sartzea aurreikusten da. Bizkaiko Foru Aldundiak prozesu hori ahalik eta modu egokienean egiteko interesa duenez, beharrezkotzat jotzen dugu egokitzeko denbora gehiago eskaintzea. Hori dela eta, sistema behin betiko ezartzeko epe berriak finkatzen dituen egutegi bat ezartzen duen Foru Arau bat izapidetzen hasi da.

Batuz: behin betiko ezartzearen egutegi berria

Egutegi berriak Batuz sistema behin betiko ezartzeko 5 data ditu, zergadun motaren eta garatzen duen jarduera nagusiaren araberakoak. Kasu konkretuen behin betiko ezarpenaren data jakiteko, www.batuz.eus/behinbetikoezartzea helbidean eskura duzun data-kalkulagailua erabil dezakezu.

Behin betiko ezartzearen data	Zergaduna	Jarduera nagusia
2024/01/01	Mikroenpresak, enpresa txikiak edo ertainak EZ diren Sozietateen gaineko Zergaren zergadunak.	Edozein jarduera.
2024/07/01	Pertsona fisikoak, errentak esleitzeko araubidean dauden entitateak, eta mikroenpresak, enpresa txikiak edo enpresa ertainak diren Sozietateen gaineko Zergaren zergadunak.	Industriako, fabriketako, eraikuntzako eta garraioko enpresa-jarduerak. Jarduera enpresarial eta profesional finantzarioak, juridikoak, aseguruaren arlokoak, alokairukoak, sanitarioak eta gainerako jarduera profesionalak, salbu hezkuntzaren arlokoak eta kultura-jarduerak.
2025/01/01	Pertsona fisikoak, errentak esleitzeko araubidean dauden entitateak, eta mikroenpresak, enpresa txikiak edo enpresa ertainak diren Sozietateen gaineko Zergaren zergadunak.	Handizkako merkataritza.
	Mikroenpresak, enpresa txikiak edo enpresa ertainak diren Sozietateen gaineko Zergaren zergadunak.	Txikizkako merkataritza, ostalaritza, ondasun higigarrien konponketa, ile-apaindegiak eta bestelako zerbitzu pertsonalak.
2025/07/01	Pertsona fisikoak eta errentak esleitzeko araubidean dauden entitateak.	Txikizkako merkataritza, ostalaritza, ondasun higigarrien konponketa, ile-apaindegiak eta bestelako zerbitzu pertsonalak.
2026/01/01	Sozietateen gaineko Zergatik erabat eta partzialki salbuetsita dauden erakundeak. 4/2019 Foru Arauari atxikitako irabazi-asmorik gabeko erakundeak.	Edozein jarduera.
	Pertsona fisikoak, errentak esleitzeko araubidean dauden entitateak, eta mikroenpresak, enpresa txikiak edo enpresa ertainak diren Sozietateen gaineko Zergaren zergadunak.	Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza, hezkuntza eta kultura-zerbitzuak.

Batuz: más flexibilidad para su implantación

El 1 de enero de 2024 está prevista la implantación definitiva de empresas y autónomas/os de Bizkaia al sistema Batuz. Dado el interés de la Diputación Foral de Bizkaia en facilitar que ese proceso se realice de la manera más satisfactoria posible, consideramos necesario ofrecer un mayor tiempo de adaptación. Por ello se ha iniciado la tramitación de una Norma Foral que establece un calendario con nuevos plazos de implantación definitiva al sistema.

Batuz: nuevo calendario de implantación definitiva

Este nuevo calendario tiene 5 fechas de implantación definitiva a Batuz dependiendo del tipo de contribuyente y de la actividad principal que desarrolle. Para conocer la fecha de implantación definitiva para un caso concreto, puede usar una calculadora de fechas que está a su disposición en www.batuz.eus/implantaciondefinitiva.

Fecha de implantación definitiva	Contribuyente	Actividad principal
01/01/2024	Contribuyentes del Impuesto sobre Sociedades que NO sean microempresas, pequeñas o medianas empresas.	Cualquier actividad.
01/07/2024	Personas físicas, entidades en régimen de atribución de rentas y contribuyentes del Impuesto sobre Sociedades que sean microempresas, pequeñas o medianas empresas.	Actividades empresariales industriales, fabriles, de construcción y de transporte. Actividades empresariales y profesionales financieras, jurídicas, de seguros, de alquiler, sanitarias y resto de actividades profesionales excepto educación y actividades culturales.
01/01/2025	Personas físicas, entidades en régimen de atribución de rentas y contribuyentes del Impuesto sobre Sociedades que sean microempresas, pequeñas o medianas empresas.	Comercio mayorista.
	Contribuyentes del Impuesto sobre Sociedades que sean microempresas, pequeñas o medianas empresas.	Comercio minorista, hostelería, reparación de bienes muebles, peluquerías y otros servicios personales.
01/07/2025	Personas físicas y entidades en régimen de atribución de rentas.	Comercio minorista, hostelería, reparación de bienes muebles, peluquerías y otros servicios personales.
01/01/2026	Entidades total y parcialmente exentas del Impuesto sobre Sociedades. Entidades sin fines lucrativos acogidas a la Norma Foral 4/2019.	Cualquier actividad.
	Personas físicas, entidades en régimen de atribución de rentas y contribuyentes del Impuesto sobre Sociedades que sean microempresas, pequeñas o medianas empresas.	Agricultura, ganadería y pesca, educación, y servicios culturales.

Batuz sistema borondatez eta pizgarriekin aplikatzea

Zergadunek Batuz sistema **borondatez** aplikatu ahal izango dute behin betiko ezartzearen data iritsi baino lehen; kasu horretan, *Pizgarri fiskalak* atalean ezarritako **konpentsazioa** jasotzeko eskubidea izango dute. Horretarako, komunikazio bat aurkeztu beharko dute hemen adierazitako epeetan www.batuz.eus/behinbetikoezartzea.

Lehen epea: 2023ko **azarotik** (Foru Araua Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik) **2023ko abenduaren 15era arte**. 2022an eta 2023an Batuz sistemara atxiki direnek ez dute berriz aurkeztu beharko komunikazio hori.

Pizgarri fiskalak

Batuz sisteman borondatez sartzen direnek honako hauek aplikatu ahal izango dituzte (modu bateragarrian):

- % 10eko konpentsazioa 2024 eta/edo 2025eko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan edo Sozietateen gaineko Zergan.
- Batuz sistemara egokitzeagatik izandako inbertsioen eta gastuen % 30eko kenkaria 2024 eta/edo 2025eko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren edo Sozietateen gaineko Zergaren kuotan.

Salbuespenak

Izapidetzen ari den Foru Arauak honako albuespen hauek eskatzeko aukera ematen du:


- **Erretirotik edo jarduera uztetik hurbil** dauden zergadunentzat: TicketBAI betetzeko albuespena, Batuz sistemara egokitzeko kostuak ez badira proportzionatuak jarduera uzteko geratzen zaien denborarekiko.
- Jarduera ekonomikoengatik urtean 2.000 euroko diru-sarrerak gaintitzen ez dituzten pertsona fisikoak, baldin eta sarrera horiek Balio Erantsiaren gaineko Zergari ez badaude lotuta edo Balio Erantsiaren gaineko Zergatik salbuetsita badaude eta atxikipenari lotuta badaude, eta gastu kengarririk ez badute: ez dira behartua egongo TicketBAI erabiltzera, ez eragiketa ekonomikoen erregistro libururik (EEEL) eramatera.

Salbuespen horiek, araudiak aurreikusten duen arrazoi teknikoengatik TicketBAItik aldi baterako albuestea eskatzeko aukerari gehitu behar zaizkio.

Aitorpenen zirriborroak

2023ko apiriletik, Bizkaiko Ogasuna Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitorpenen zirriborroak ematen ari da Batuzen sartutako zergadunei, eta 2023ko urritik, berriz, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren autolikidazioen zirriborroak.

Informazio gehiago: www.batuz.eus



Itxaso Berrojalbiz Zabala
Ogasun eta Finantza Saileko Foru Diputatua



Batuz: zer da?

Batuz Bizkaiko enpresa eta autonomo guztien zerga-betebeharrak betetzeko sistema berria da eta laguntza-mekanismoak indartzen ditu haientzat.

Batuz hiru osagaik eratzen dute:

- **TicketBAI** fakturazio-software berrmatzailea.
- Eragiketa ekonomikoen erregistro liburua (**EEEL**) Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan eramatea.
- Eta zergadunei laguntzea, **Balio Erantsiaren gaineko Zergaren, Sozietateen gaineko Zergaren eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitorpenen zirriborroak** eginez.

TEST

Aplicación voluntaria incentivada de Batuz

Las y los contribuyentes podrán aplicar **voluntariamente** el sistema Batuz antes de que llegue la fecha de su implantación definitiva, en cuyo caso tendrán derecho a la **compensación** recogida en el apartado *Incentivos fiscales*. Para ello, deberán presentar una comunicación en los plazos indicados en www.batuz.eus/implantaciondefinitiva.

Primer plazo: desde **noviembre** de 2023 (día siguiente de la publicación de la Norma Foral en el Boletín Oficial de Bizkaia) hasta el **15 de diciembre** de 2023. Quienes ya se hayan adherido a Batuz en los años 2022 y 2023 no deberán volver a presentar esta comunicación.

Incentivos fiscales

Quienes se incorporen a Batuz de forma voluntaria podrán aplicar (de forma compatible):

- Una compensación del 10% en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas o en el Impuesto sobre Sociedades de los años 2024 y/o 2025.
- Una deducción del 30% de las inversiones y gastos por la adaptación a Batuz en la cuota del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas o del Impuesto sobre Sociedades en los años 2024 y/o 2025.

Exoneraciones

La Norma Foral que se está tramitando ofrece la posibilidad de solicitar las siguientes exoneraciones:


- Para contribuyentes **próximos a la jubilación o cese de actividad**: exoneración del cumplimiento de TicketBAI cuando los costes derivados de la adaptación a Batuz no sean proporcionados con respecto al tiempo que les quede para el cese.
- Para las personas físicas cuyos ingresos anuales por sus actividades económicas no superen los 2.000 euros, estén no sujetos o exentos del Impuesto sobre el Valor Añadido y sujetos a retención, y no tengan gastos deducibles: no tendrán que utilizar TicketBAI ni llevar el libro registro de operaciones económicas (LROE).

Estas exoneraciones se añaden a la posibilidad que ya contempla la normativa de solicitar una exoneración temporal de TicketBAI por causas técnicas.

Borradores de declaraciones

Desde abril de 2023 la Hacienda de Bizkaia ya está facilitando borradores de declaración del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas a las y los contribuyentes incluidos en Batuz y desde octubre de 2023 los borradores de autoliquidaciones del Impuesto sobre el Valor Añadido.

Más información: www.batuz.eus



Itxaso Berrojalbiz Zabala
Diputada Foral de Hacienda y Finanzas



Batuz: ¿qué es?

Batuz es el nuevo sistema de cumplimiento de las obligaciones tributarias de todas las empresas y autónomas/os de Bizkaia, con un refuerzo de los mecanismos de asistencia para todas ellas.

Batuz lo forman tres componentes:

- El software garante de facturación **TicketBAI**.
- La llevanza del libro registro de operaciones económicas (**LROE**) en la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia.
- Y la asistencia a contribuyentes mediante la elaboración de los **borradores de las declaraciones del Impuesto sobre el Valor Añadido, del Impuesto sobre Sociedades y del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas**.